



“Zatozeuskarara” kanpainak, euskara Bizkaiko helduen artean sustatzea du helburu

Lehengo ikasturtean, 20.000 lagunek euskara ikasi zuten lurralde honetako 66 euskaltegi publiko eta pribatuen sare osoan.

Bilbon, 2014ko irailak 17. Bizkaiko Foru Aldundiak, EUDELe eta lurralde honetako euskaltegi publiko eta pribatuen sareek abian jarri dute «Zatozeuskarara» kanpaina. Haren xedea 2014-2015eko hurrengo ikasturtean euskaltegi sare osoan helduen matrikulazioa sustatzea da. Gainera, kanpaina honekin, Bizkaiko ikasleak eta elkarte euskaltzaleak gonbidatu nahi dituzte euskara eguneroko bizimoduan eta gizartearen edozein alorretan erabiltzera.

Kanpaina gaur goizean aurkeztu dute Bilboko EUDELeko egoitzan Josune Ariztondo Kulturako Foru Sailburuak eta Imanol Landa Getxoko Alkateak, biak EUDELen izenean. Haiekin batera, Bizkaiko euskaltegi publiko eta pribatuen ordezkari bi egon dira.

Imanol Landa EUDELeko ordezkariak herri-erakundeen arteko ahaleginak batzeak daukan garrantzia gogora ekarri zuen. Izan ere, batik bat, Bizkaiko udalentzat euskaltegietan matrikulatzeko kanpainak sustatzen jarraitzea garrantzizkoa eta beharrezkoa da. *“Euskararekin dugun konpromisoa irmoa da eta helduen euskalduntzea funtsezko gakoa da euskara normalizatzeko prozesuan. Gainera, euskaltegi publiko zein pribatuen sare osoa sostengatzen lagundu behar dugu, orain arte egin den bezala”.*

Ildo horretan, Imanol Landak herritarrak bultzatu zituen gaur egun Bizkaiko eskaintza zabala osatzen duten euskaltegietara hurbiltzera: *“herritarrak animatu nahi ditut euskaltegi batera joatera eta horretan matrikula egitera. Ez dira damutuko. Leloak dioenez: Zatoz euskarara”.*

Aldundiaz eta EUDELez gain, Alkarbide topaguneak honako ekimen hau sustatzen du. Bertan batzen dira Bizkaiko euskara-zerbitzu guztiak eta helduen euskalduntzean inplikaturako eragileak.

Izan ere, “Zatozeuskarara” kanpainaren bidez Bizkaian bizi eta euskara ezagutzen ez duten edo euskalduntzen dabiltzan helduen artean euskara sustatzeko asmoa dago. Multzo horretan 700.000 lagun daude.



Euskararen irakaskuntzaren eskaintza Bizkaian

Bizkaiak euskalategi publiko zein pribatuen sare oparoa dau. Hala, **sare publikoa 21 udal euskalategiz** osatuta dago, oro har, Bizkaiko herri populatuenetan banatuta. **Sare pribatua, berriz, 45 euskalategiz** osatuta dago eta eskaintza joriena Bilbon metatzen den arren, Bizkaiko herri gehientsuenetan ematen dute zerbitzua.

2012-2013 ikasturtean, ia 18.000 ikasle aritu ziren euskara ikasten Bizkaiko euskalategietan (33.000 EAEkoetan). Horietatik % 30 inguruk (% 27 EAEn) euskalategi publikoetan ikasi zuten eta % 70ek (% 73 EAEn) euskalategi pribatuetan.

Guztira, aipatutako ikasturtean, 4.026.743 ikasle-ordu eta 351.462 talde-ordu eman ziren gure lurraldean. Bestetik, datorren ikasturteko matrikulazio datuei begiratuta (matrikulazio-aldia ez da amaitu), esan dezakegu helduen euskalduntzearen inguruko datuak oso-oso antzekoak izango direla amaitu den ikasturtearekin alderatuta.

Zabalkunde-euskarriak

Euskararen egunean egin ohi dugun moduan, bi kartel eredu prestatu dira, bata ekimenaren irudi orokorra jasotzen duena eta bestea herrian dagoen helduen euskalduntzearen eskaintza iragartzen duena.

Aipatu euskarriak Bizkaiko udal eta mankomunitateetako **euskara zerbitzuen bitartez (59)** hedatu dira lurralde osora.

Informazio gehiago: alkarbide@bizkaia.net